

# B

BARREN

# Bizi osoa soinuari emanda

Bitoriano Loiola

TOKIKOM



# DACC

- Arropak 46 tailatik aurrera
- Osagarriak: pultserak, belarritakoak...
- Merkatuko marka ezagunenekin egiten dugu lan (Lola Casademunt, Paca Garcia, Biluzik...)

Animatu eta zatoz gure denda berria ezagutzera!

**Aurkezpena,  
martxoaren 6an  
18:00etan**





## Historia aldatuko duten istorioak

Marijok hiru seme alaba dauzka, eskolako jantokiko langilea da, eta duela gutxi bere senarra langabezia gelditu da. Depresioak jota, senarrak etxetik alde egin du, ardura guztia Marijoren eta kobratzen duen soldata miserablearen gain utzita. Ama gertu bizi da, eta ahal duen beste laguntzen dio alabari.

Joan den mendekoa dirudien hau atzoko istorioa da. Gauzak ez dira uste nahi dugun beste aldatu emakumeentzat, eta, tamalez, esango nuke etxeko arduren pisua emakumeok daramagula oraindik ere. Gaizkien ordaindutako lanak ere guk egiten ditugu, edota baldintza onetan lan egiten duten emakume gehienak, gaitasun berdina edo hobeak izanda ere, gizonezko baten itzalera kondenatuak daude. Askok, gainera, beraien lekua nork errekonozitu zain daude. Egoeren zerrenda luzatu nezake, baina ingurura ikuspegi kritikoz begiratzea besterik ez duzue.

Gaur, haurrak eskolara zeramatzala, Marijorekin hizketan aritu naiz.

Astelehenean martxoaren 8ko manifestaldira joango dela eta asteartean greba egingo duela esan dit. Jantokiko langileek greba egingo dutelako asteartean eta ostegunean, lan baldintza duinak eskatzeko.

Eta gizartea Marijo bezalako pertsonak aldatzen dutela pentsatu dut. Dagozkien eskubideen alde taldean lan eginez, injustiziei aurre egiten dieten pertsonak direla historia aldatuko dutenak, eta ez, etxeko sukaldean sartuta edo bulegoko aulkian eserita, haien egoerari etsita begiratzen diotenak. Denborak gauzak “berez” aldatuko dituela uste duena oker dabil. Aukera eta eskubide berdintasuna eskuratzeko lan egin behar dugu, eta martxoaren 8a, beti bezain beharrezko, ate joka dator.

Lorea Perez de Albeniz



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Denborak gauzak ‘berez’ aldatuko dituela uste duena oker dabil”**



ESKERTZA

**JOSE ODRIOZOLA ARANBERRI**

*Kantuan agurtzen zaittugu,  
kantuan jua zera ta;  
hemen guk hala segittuko dogu  
zure ahotsaren oihartzunak lagunduta.*

Zure sendia

*2010eko otsailaren 28an hil zen, 77 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# BITORIANO LOIOLA

SOINU JOLEA

**“10 urte egin  
aurretik buruz  
hartutako  
piezak ere  
badauzkat nik”**



Apirilaren 13an 84 urte beteko ditu Bitoriano Loiola *Ospasek*, baina nahiko lukete askok haren sasoia. Belaunek hartzen dute estu, baina buru argia eta atzamar bizkorrak ditu artean, eta soinua jotzen ospatu nahi du urtebetetzea. Berezia izango delako 84. urtebetetzea. Egun horretan, gidabaimena berritzeko proba egin behar du Eibarren. “Egun handia izan daiteke, edo ez. Nik beti esaten dut bi maitale ditudala: soinua eta automobila. Nahi nuke biei eustea”. Umetatik datorkio trikiti zaletasuna Bitorianori, eta soinuak bizi du. Mendaron bizi bada ere, Mutrikuko Abeletxe baserrian jaiotakoa da, eta han erromeria egiten zuten jaiero. Han ikasi zuen soinu txikia jotzen, solfeoaren arrastorik izan gabe, eta soinuak egin du ezaguna. Bi aldiz irabazi du 60 urtetik gorako trikiti txapelketa Zarautzen, Luzio Ubera panderojole zuela, eta Nazioarteko Trikitixa Jaialdian ere jotakoa da, Janire Elordi ilobarekin.

Elkarrizketa osoa irakurtzeko eta bideoa ikusteko: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

### **Noiz eta non hasi zinen soinu txikia jotzen?**

Sasoitako kontua da ni soinua jotzen hasi nintzela. Olatzkoa naiz ni (Mutriku), Ibiriko Abeletxe baserrikoa. Jai iluntzetan erromeria egiten zen gure etxean. Nik 7 bat urte nituela hasi ginen, eta hamar bat urte iraun zuen. Taberna lege bat ere bazen han, eta bazter askotako jendea etortzen zen. Denak oinez, orduan ez zegoen biderik-eta Mutrikitik gora. Ilundu baino hiru bat ordu aurretik hasten zen erromeria, eta iluntzearekin batera amaitu. Orduan, neska guztiek alde egiten zuten, eta gizonezko banaka batzuk gelditzen ziren, jokoan edo. Nik 17 bat urte nituela, baina, baserriko taberna kaxkar hari kalekoen zerga berdina jarri zioten, eta derrigorrean itxi egin behar izan genuen, zerga hori ordaintzeko adina ez zen urte guztian ateratzen-eta. Taberna itxi zutenean amaitu ziren hango erromeriak. Ordurako ni soinua jotzen hasita nengoan.

### **Zeuk jarduten zenuen soinua jotzen?**

Neuk, bai. Peraan pandero joleran bat tokatzen bazen, ondo, eta bestela, neu bakarrik. Orduan ez zen oraingo konturik. Berezia izaten zen orduko erromeria. Han ez zen ezkonduzik izaten, ezta 14 urtetik beherako gazterik ere. Dena sasoiko jendea izaten zen han. Gazteek, ezkontzen zirenean, bi jaitan erromeriara etortzeko baimena izaten zuten, baina bi jaitan bakarrik. **Sasoikoak eta bikotekiderik gabeak. Makina bat gauza ikusiko zenituen zuk, ala?**

Izaten ziren halakoak ere ilunarekin batera. Dantzan gelditu ere egin gabe ibiltzen zen han jendea. Dantzarik egin gabeko neskarik ez zen izaten. Mutilak, berriz, iluntze aldera hasten ziren dantzan. Teilape barruan egiten zen erromeria, eta eguraldiak ontzen zuenean, kanpoan. Kanpora irtenda-koan, baina, erdiek ez zuten dantzarik egiten. Ezkutuan nahi izaten zuten, ilunpetan. **Eta Abeletxetik Larruskainera gero.**

Bai, 17 bat urte nituela etorri zitzaizkidan Larruskainera joateko esanez. Hogei hila-betea joan nintzen, jaiero, hutsik egin gabe. Ordu eta erdiko bidea zen joaten, eta beste horrenbeste, bueltakoan. Bueltakoa ez zen ederra izaten. Erromeria bukatzen zenean afaria ematen zidaten han, eta gero, hartu soinua bizkarrean, eta etxera. Eguneko ogerlekoa irabazten nuen orduan basoan lan egiteagatik, eta Larruskainen, zazpi ogerleko ematen zizkidaten egune-

ko, eta, gainera, afari ederra ere bai. Nik artean ez neukan gidatzeko baimenik, baina, eta plaza hartzeko, soinu joleak baimena behar zuen derrigor. Berrizko soinu jole batek hartu zuen plaza hura, eta gero erreleboa hartu nion nik. 18 urte egin gabe neuzkan Larruskainen hasi nintzenean, baina urte hartan, irailean, laga egin nuen, soldadutzara joateko.

**“Ilara bikoa izan zen nire lehenengo soinua. Zenbat bider ez ote naiz damutu ez gordetzeaz”**

### **Zein izan zenuen maisu?**

Neure kontura ikasi nuen. Solfeoarean arrastorik ere ez daukat nik. Umetan, etxera etortzen zen soinu jolearen ondoan jartzen nintzen, eta halaxe. *Elgeta* [Jazinto Rivas] zen orduan hemen inguruetakoa onena. Gure anaia zenak banketxean lan egiten zuen, eta askotan elkarrekin bazkaltzen zuten. Lagun egin ziren, eta jai iluntze batean gure anaia zenak Abeletxera ekarri zuen, soinua jotzera. Bertan gelditu zen hiru-lau egunean, mantentze aldera niri soinua jotzen erakusteko. Harekin jardun nuen lau iluntzetan. Goizean ordu biko bidea egin oinez, egun guztia porlan zakuekin ibili, eta iluntzean etxeratzen nintzenean, zain izaten nuen. Goizean, berriz, bos-tetan jaiki eta beste ordu erdi bat aritzen ginen. *Elgetak* erakutsi zidan nondik hasi behar nituen piezak.

### **Zenbat gazte ote daude urtetan solfeoa ikasi ezinda. Nola liteke zuk dena buruz hartzea?**

Nik burua ez dut bestela nekatzen-eta. Esaten dute burua beste ezertan nekatzen ez duenak beti izaten duela kapazitate ona zerbitutarako. Burua erabili ere egin behar da, baina, eta solfeoa dakitenek irakurri egiten dute eta ez dute buruan hartzen.

### **Soldadutzak eten zuen zure jarduna?**

Bai eta ez. Ferrolen (Galizia) egon nintzen ni, *marine*, eta koartelean ere jo nuen soinua. Hara joan eta denbora batera, soinua

bidali zidaten hango Concha Vasca tabernara, egurrezko kutxa batean sartuta. Soldadutzatik bueltan lagata izan nuen. 27 urterekin, Mendarora etorri nintzen, Ospasera. Hemen zortzi-hamar esne behi bage-neuzkan orduan, eta jai eta aste ibiltzen ginen lanean. Orduan, gainera, soinu handiarekin hasita zeuden asko, eta soinu txikia modatik alde eginda moduan zegoen. Jotzeari ere laga nion. Lagunartean hartzen nuen, baina bestela, ezer ez. 44-45 bat urte nintzenean hasi nintzen berriz, alabek eskatuta.

### **Soinua ondoen oraintxe jotzen duzula irakurri dizugu. Egia da hori?**

Hala da-eta. Ondoen oraintxe nabil, 66-67 urtetik atzera. Gu lanean ibiltzen ginenean ez zen orain beste makina izaten. Belar zuloak zela edo beste edozer zela, sardearekin ibiltzen ginen gu egun osoan. Orduan gogor-gogor eginda neuzkan nik atzamarrak, eta ezin izaten nuen soinua dominatu. Orain zuzendu zaizkit niri atzamarrak.

### **Santa eskean ezagutu zintugun guk, Mutriku. Ordurako beterranoenetakoa zinen.**

Santa eskean beti ibili naiz ni, urtero. 14 urterekin joan nintzen ni lehenengoz. Bidekoa eta santa eskekoa baino ez nekizkien, baina moldatu ginen. Soldadu egon nintzen urtean eta ondoezik egon nintzen beste urte batean falta izan nintzen bakarrik. Beste hutsik ez dut nik egin santa eskean, orain dela bi urte arte. Iaz ere joatekoa nintzen, baina ingresatu egin ninduten eta hantxe amaitu zen. Aldrebesa izaten da Mutriku santa eskea. 9:00etan hasten da eta goizaldeko seiretan amaitu, Galdonan, berakatz zopak janda. Omenaldia egin zidatenean, familia guztia etorri zen afaltzera, baina afalostean ni berriz joan nintzen kantura.

### **Ospasen ere sarri izaten dira erromeriak...**

Bai, bai. Jaietan familia batzen denean beti jotzen dut nik soinua. Aurreko Gabonetan ere hemen ibili ginen. Nik bidekoa jo, eta familiakoak, atzetik, dantzan. Horko ate horretatik irten eta hango beste hartatik barrura berriz ere. Gure senide artean soinuazaleak dira. Nire urtebetetzetako bazkaria Zarauzko Urdanetan egiten dugu urtero, eta han ere sekulako erromeria egiten dugu.

### **Gogoan daukazu zure lehenengo soinua?**

Ilara biko soinua zen. Zenbat bider ez ote



naiz damutu soinu hura ez gordetzeaz. Italiarra zen. Nik zarata pixkat ateratzen nion, baina azkenerako abanikoa ere apurtu zitzaion eta harenak egin zuen. Gure osaba bat Aizarnazabalen bizi zen orduan, eta hark lortu zuen Zengotita bat. 40 ogerleko pagatu ei zituen ezkondu aurretik, eta gero, gurean erromeria egiten hasi zenean, Mixkiako soinu jole bati, Idiazabaltxori, saldu zion, erositako prezioan. Hark hiru bat urtean jo zuen soinu harekin, eta bueltan niregana iritsi zen. Gure aitak 40 ogerleko-tan erosi zion. Gero, Arnobateri erosi nion beste bat, dotorea. Eta hirugarrena Ermuan erosi nuen. Zeroseite txiki bat da, sekula eskuan hartu dudan instrumenturik poltiena.

**Makina bat lekutan ibili zara soinuarekin. Donostiako Trinitate Plazan eta Kursaalean ere jo duzu, Nazioarteko Trikitixa jaialdian.**

Bai. Kursaaletan orain bi urte izan zen. Tapia etorri zitzaidan etxera, Kursaalean jo behar nuela esanez. Nik esan nion sarrera kobratutako zer batera joateko beste ez nintzela ni, baina berak, baietz. Nahi nituen piezak jotzeko eskatu zidan, baina zaharrrak izan zitezela. “10 urte egin aurretik buzur hartutako piezak badauzkat nik”, esan nion, eta berak: “Ahal baduzu horiexek jo”. Janire ilobak lagundu zidan panderoarekin. Handia izan zen.

**Gogoan daukazu zer pieza jo zenituzten?**

Jakina. Pasodoble bat badaukat nik, Lajari eta direnei eta ez direnei jo, eta inork ezagutzen ez duena. Pieza hori Gerra hasi zen urtean ikasitakoa da, 9 bat urte nituenean. Aita zena eta biok etorri ginen gonbidatu Lasaldera, aitaren jaiotetxera, eta han geundela Billalen soinu hotsa entzun nuen. Han bazen soinu jole bat, ordurako hiru ilarako soinua jotzen zuena. Orain ere begien aurrean daukat gizona. Grabatuta gelditu zitzaidan niri pasodoble hura. Etxera etorri, paperarekin soinua egin, eta hantxe jardun nuen, plantetan. Kursaalean jo nuen piezetako bat huraxe izan zen. Txotis bat izan zen bestea, Trinitateko eliza konpontzeko grabatutako diskoan jasotakoa: *bésame*. Gure osaba zena ezkondu zenean, Gelatxo zaharra etorri zen Abeletxera, eta hari entzunda ikasitakoa da.

**MADRILERA BIDAIA**

**H**amaika ibili egindakoa da Bitoriano Loiola soinuarekin, baina bat dauka bereziki gogoan. Reala eta Bartzelonaren arteko Ligako finala ikustera Madrilera egindako bidaia (1951). Egunean bertan irten ziren Mutrikutik hamahiru lagun, 6:00ak aldera. “Kamioian garoa zabaldu, lurrean jarri, bota toldoa gainetik, eta Madrilera”.

Madrilera iritsi, eta futbol zelai ondoko tabernara batu ziren haietako asko. “Bar Euscalduna zeukan izena, eta jendez gainezka zegoen. 30 metrora arrimatu ginen, baina ezin aurrera egin. Atera nuen soinua kutxatik, hasi nintzen bidekoa jotzen, eta denok barrura. Bidea ere egin ziguten”. Gogoan dauka handik unibertsitatera joan zirela, abokatu izateko ikasten ari zen mutrikuar bat bisitatzen. “Leku serioa zen hura, eta soinua ezkutu hartuta sartu ginen, errespetuz. Sartu ginen hara, eta tabernariak barra atzetik: “*Vosotros sois de Motrico?*”. Baietz guk. Eta berak orduan: “*Y dónde está el tin-tin?*”. Atera gendun soinua, eta afaltzen zeuden guztiak dantzan jarri genituen. Hura izan zen txalo hotsa”.

Gauean, kamioian lo zeudela, soinu hotsak esnarazi zituen berriro. Erreteriarak ziren. “6:00ak inguru ziren. Kamioitik salto egin eta haiekin ibili ginen soinu hotsean, harik eta bueltatzeko ordua iritsi zen arte. Bueltakoan, Aranda de Dueroan gelditu ginen. Erratz batzuk erosi genituen, haiekin dantza egin, eta gauerdirako etxeratu ginen”.

*Luzio Ubera eta Bitoriano Loiola, Zarautzen, 60 urtez gorakoen trikiti txapelketan.*






**Kiroldegiko sarrera egokitu egin behar da:** “Urteak joan eta urteak etorri, eta umeen aulkiarekin kiroldegira sartu ezinik jarraitzen dugu.

Hain zaila da sarrera moldatzea edo sarbide berri bat egitea? Batzuetan igogailua erabili ahal izaten dugu, baina azkenekoz, ez zidaten igogailua erabiltzen laga, ikastaro bat zegoelako. Gainerakoek bezalaxe ordaintzen dugu bazkide kuota, baina ematen diguten zerbitzua ez da berdina. Gure eskaera ez da kapritxo eginikoa. Benetako beharra sentitzen dugulako eskatzen dugu kiroldegirako sarbide berria, eta espero dut gure nahia aintzat hartzea”.



**Erretxindiko zubia oso egoera txarrean dago:**

“Erretxindi auzoko zubia erabat zahartuta dago, eta berritu egin behar da. Barandak ugetuta daude aspalditik, eta zenbait lekutan baranda zatiak falta dira. Nire semea kabitzeko moduko zuloa dauka barandak! Zubiak altura handia dauka, eta azpian autobidea dago, beraz, ez dago esan beharrik arriskutsua dela. Lurra ere zuloz beteta dago, eta umearen aulkiarekin joateko ez da batere egokia. Askotan, gainera, autoak egoten dira espaloian aparkatuta, eta errepidera irten behar izaten dugu. Ez dago argirik, eta gaez oso ilun egoten da. Ingurunea berritu dute, baina zubia ez. Herrian baranda berriak jarri dituzte leku askotan, eta Erretxindiko zubia ere berritu beharrean dago”.



ESKERTZA



## DOMINICA OLAZABAL ARAMBERRI

2010eko otsailaren 25ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



## JOSE MARI REGIL IRURETA

2010eko martxoaren 1ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Goazen independentziara!

Euskal gazteria bi estatuk eta sistema patriarkar oso batek zapaltzen dute. Frantziar eta espainiar kateek aske izan nahi duen gazteria indarrez lotzen dute, eta sistema kapitalista eta patriarkarren mesedetan dagoen herria sortzen ari dira. Gure herria ukatzera eta prekarietatean bizitzera kondenatu nahi gaituzte agintariak. Hori da eskaintzen diguten bidea, irtenbiderik gabeko zulo iluna.

Baina gazteok nazkatuta gaude egoera honekin! Aski da esateko ueña iritsi zaigu. Estutzen gaituzten kate horietatik askatu eta libre izango garen herri baten alde lan egin behar dugu, independentziaren alde indarrak bildu, eta alternatibak eraikitzea besterik ez dugu. Egoera irauli behar dugu.

Zapalkuntza, errepresio eta ukazioaren aurrean bestelako eredu eta balore batzuen arabera eraiki behar dugu gure herria. Eraiki behar dugu independentzia. Zazpi lurraldez osatutako herria izatetik haratago, herri eredu oso bat bezala ulertzen baitugu independentzia. Finean, pertsona askez osaturiko herri aske bat dugu helburu.

Gaur, inoiz baino gehiago, independentziaren alde indarrak bildu eta independentziarako bidea marraztuko dugu.

**Gazte independentistak** ☺

### Elkartasuna zigortua berriz ere!!

Espainiar estatuan biziarteko espetxe zigorra legeztatu dute. *Gatzak* 30 urte bete-ko ditu laster espetxean, eta European espetxetik atera gabe denbora gehien daraman euskal preso politikoa da.

Espetxean dauden euskal preso politi-

koei muturreko egoerak ezarri dizkiete, askotan beraien legeak ere betetzen ez dituzten neurriak ezarrita.

Sakabanaketak senideak hiltzen ditu, minbizia duten euskal preso politikoak espetxean mantentzen dituzte, heriotza mehatxuak eta jipoiak ematen dira espetxeetan euskal preso politikoen aurka, isolamendu politikan sakontzen ari dira.

Euskal preso politikoentzat benetako Guantanamo bat eraikitzen ari diren bitartean, egoera larri hauek pairatzen dituzten presoei elkartasuna adieraztea espetxearekin zigortzen ari dira.

Epai honek espainiar errepresio estrategiaren neurria erakusten du. Edozein herrialdean ekitaldi politiko batean parte hartzea eskubide demokratiko bat besterik ez den bitartean, espainiar estatuan terrorismoari loturiko jardura da, espetxearekin ordaindu daitekeena.

Espetxe politika anker honi bidea ixteko modu bakarra gizartearen presioa antolatzeta eta mobilizazio indartsuak egitea da. Horretarako deia zabaldu nahi dugu berriz ere.

Barne Ministerioaren bilkuretan erabakitako zigorrak idazten ditu Espainiako Auzitegi Nazionalak. Rubalcabak erabakimen ahalmena du errepresio strategiaren adar guztien gainean, eta Otegi-aren aurkako epaia soilik ondo marrazturiko errepresio strategiaren logikan ulertu daiteke.

Arnaldo Otegi gure elkartasuna adierazten diogu, berehala aske utzi dezatela aldarrikatzen dugularik.

**Elgoibarko AAM** ☺

## OHARRA

Gaurtik aurrera, **BARREN** astekaria izenik gabe

**BARREN** astekaria izenik gabe jasoko duzue aurrerantzean. Erabaki hori hartzeko arrazoi nagusiak bi izan dira: **banaketa sistema hobetzea eta kostuak gutxitzea.**

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIARIK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZAILA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odría, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Inureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Ane  
Odria



Maialen  
Olazabal



Aupa, Maialen. Badakizu zer den hezkidetza? Beharbada noizbait entzunda izango duzu, edo akaso ez zaizu batere hitz ezagu-

na egingo, auskalo. Gure berbak irakurtzen dituztenentzat ere, baliteke sekula entzun gabeko zerbaiz izatea hezkidetzarena. Hitz gutxitan esateko, jendarte sisteman parekidetasuna lortzeko aukera da hezkidetza; hau da, gure sexu eta generoak ezarritako irizpide sexistak kontuan izan gabe hezteko aukera. Inauteriak pasa direla eta, esaidazu, herriko umeen artean zenbat mutil ikusi dituzu printzesa mozorrotuta? Eta zenbat neska Spiderman jantzita? Ezagutzen al duzu semeari printzesa mozorrotzeko proposatu dionik? Gutxi izango dira. Hau kontuan hartuta, umeak benetan mozorroa askatasunez aukeratzen duela uste duzu?

Ez dakit ohartuko zinen, baina umeen artean dagoen sexu bereizketa horrek arerio latzak ditu: gure artean bizi diren adinekoak eta gizartearen parte handi bat. Agian beraiei ikasi edo ikusitakotik hartu ditugu kontzeptu horiek. Zenbat amona ikusten dituzu lagunartean basoerdi batzuk hartzen? Edota zenbat aitona beraientzat barruko arropak erosten? Askotan gusturen egingo genukeena albo batera utzi, eta gehien-goak egiten duena egin ohi dugu. Eta besteek edaten duten uraren aurkako korrontean doanari “arraroa” dela esan ohi dugu. Aurreiritziek oraindik (2010. urtean gaudela gezurra dirudi) gure artean diraute.

## “Ezagutzen al duzu semeari printzesa mozorrotzeko proposatu dionik?”

Adibide txiki bat besterik ez da inauteriarena, baina mozorroak albo batera lagata ere, parekidetasun gutxi dago gure inguruan eta haurrek hori txiki-txikitatik jasotzen dute. Horregatik, haur eta gaztetxoekin ari garenok (gurasoak eurak ere kontuan hartuta, jakina) uneoro presente izan beharko genukeen kontua da hezkidetza. Azken finean, hezkuntza da, nire ustez behintzat, etorkizuna aldatzeko bide nagusia, eta horrek jarrera kontzientea eskatzen du guztion aldetik. Zer diozu, Maialen? Gustatuko al litzaizuke 2020an Elgoibarko umeen mozorroetan horrelako bereizketarik ez egotea? Ez litzateke ez, batere seinale txarra izango, ezta?

## “Hezkidetza hezkuntzaren oinarri izatea gustatuko litzaidake”

Ane, gure osteko belaunaldientzat horrelakorik ez badugu nahi, oraintxetik sustatu behar dugu hezkidetzaren kanpaina. Eta guzti honen jakitun izanagatik ere, askok eta askok erosotasunagatik ez dute gura duten hura egiteko pausoa eman nahi. Zergatik? Hezkidetza gabeko hezkuntzaz hezi zirelako. Edo garrelako. Gutako askok ere besteek jarritako plateretik jaten dugulako. Beraz 2020ari begira jarritz, hezkidetza hezkuntzaren oinarri eta gizartearen isla izatea gustatuko litzaidake, eta ea denon artean hala izatea lortzen dugun.



Elgoibarko Udala



Internetez eginiko iruzurren kopuruak gora egin zuen 2009an.

## Ausartzen zara erosketak Internetez egiten?



**Arantza Juaristi**  
50 urte, zerbitzaria

Interneti buruz ez dakit gauza askorik. Ez dut Internet erabiltzeko aukera handirik izan. Dena den, entzuten diren gauzekin, ez nintzateke ausartuko erosketak Internetez egiten. Gazteek egiten dituzte, baina nik nahiago dut erosketak orain arte moduan egitea.



**Rosa Gonzalez**  
42 urte, administraria

Bai, azkenaldian denetarik erosten dut Internetez: jantziak, bidaiak eta abar. Jatekorik oraindik ez, baina diotenez, Internetez beharrezkoa soilik erosten da, eta dirua aurrezteaz gain, argaldu ere egiten omen da jendea! Hasi beharko dut! Erosoa da Internetez erostea.



**Pedro Figueroa**  
28 urte, zerbitzaria

Ez naiz fidatzen, eta, gainera, ez zait Internet gustatzen. Ez dakit erabiltzen. Nire neskak egiten ditu erosketak Internetez, eta produktu guztiak ondo iristen zaizkio. Ez du sekula arazorik izan, baina nik nahiago dut dendetan erostea, eta produktuak momentuan ikustea.



**Miriam Etxeberria**  
38 urte, administraria

Bai, jantziak eta hegazkineko txartelak erosi izan ditut. Normalean, webgune ezagunetan ibiltzen naiz, eta ez dut inoiz arazorik izan. Erosoa da, eta merkeagoa, gainera. Banketxeek ere ematen dute eragiketarak Internetez egiteko aukera, eta ibiltzen naiz.

### ESKERTZA



## MARIA BEGOÑA LACHA ICETA

2010eko otsailaren 27an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### I. URTEURRENA



## LUIS M<sup>a</sup> PEREZ DE ALBENIZ PEÑAGARICANO

2009ko martxoaren 4an hil zen.





## Erretratu zaharra



1969

Zigor Azkoagarena da aste honetako erretratu zaharra. 1969ko uztailaren 18an aterata dago, Donostian. Argazkian azaltzen den hirukoteak mendi ibilaldi luzeak egiteko ohitura zeukan: Elgoibar-Donostia, Elgoibar-Gernika, Elgoibar-Urkiola... Gainera, ibilaldi bakoitzaren informea egiten zuten, eta txosten txiki batean biltzen zituzten ibilaldiko kilometro kopurua, eguniko denbora eta mapa txiki bat ere bai. Gaur egun GPSak ematen ditu datu horiek guztiak, baina garai hartan eskuz egiten zuten dena. Ez zuten meritu makala!

**Ezkerretik eskumara:**

Narciso Etxaniz (†), Pedro Urkidi (†) eta Eutequiano Mata (†).

## Gure berbak **Hiztegixa: interjekzio batzuk**

- ◆ **ENE!**: Etsipenezko interjekzioa. *Ene!* Goiko-Errotak eta Urbanek eta eztaikit zeñek eta, harrapau juek arraiña. Mekauen la letxe! / *Ene!* Tristia zan orduko bizimorua!
- ◆ **ERREGULARI!**: Elkarrizketetan, erantzuteko: horixe baietz-en baliokide edo. –Txakur haundixa pagau bihar. –Dantza eitxeko? –*Erregular!*
- ◆ **ESPEZIAL!**: Oso ondo, primeran. Interjekzioetan asko erabiltzen den adberbioa: Benidorren hillabete bat eitten dou. *Eta han espezial!*
- ◆ **ET, ET, ET!**: Ezezkoa. –Ja, ja, ja. Hurrenguan ardo-botillia ekarriko izut. –*Et, et, et, et!* Alperrago jarriko nok orduan da.
- ◆ **ETXAKIXAT BAI!**: Zerbaiten aurrean zalantza agertzeko erabiltzen da. –Aurten ondo ibiliko nok Behobia-Donostia lasterketan. *Etxakixa(t), pa!*
- ◆ **ETXANDO BIRUTASI!**: Interjekzio enfatikoa. Azkar, bizkor. *Etxando birutas alde ein jok Mikelek! Berdintsu, Etxando letxes eta Etxando puñetas.*
- ◆ **ETXANDO LETXESI!**: Azkar, bizkor.
- ◆ **ETXANDO PUÑETASI!**: Azkar, bizkor. *Arrankau zanian, jota dana, jota etxando puñetas kalera atzera danak.*
- ◆ **EUTSI GOIXARII!**: Animoak emateko erabiltzen da. *Eutsi goixari, motell! Pasauko jak eta ratxa txar hau!*
- ◆ **EZTAKIK ASKO!**: Ezustea adierazteko erabiltzen da. –Bixar urtiak, zorionak! –Bai, bixar. *Eztakik asko!* Berrogeta hamaika urte, ja, ja, ja!
- ◆ **FABOREZ!**: Mesedez. **Mesedez** eta **Mesedez eta faborez!** aldaera enfatikoa ere bai.
- ◆ **FIJO!**: Esaldi adierazgarrietan erabiltzen da, batez ere. –Ira-baziko dau partidua? –*Fijo!* Pijo aldaeran ere bai, zenbaitetan.
- ◆ **GERO!**: Kargu hartzeak adierazteko interjekzioa: *Argi ibilli, gero, e!* / *Ez pentzau, gero, dana libre danik!*
- ◆ **GIRO EIÑ!**: Eguraldi ona egin. **Giro izan:** Giro ona, egokia izan. **Giro ez izan:** Egoera txar bat sortu. Ezezko forman erabiltzen da. *Ezta giro izango baztarretan!*

Jesus Mari Makazaga

## Bi urteko kartzela zigorra ezarri diote Arnaldo Otegi

Terrorismoa goratu izana leporatu diote



**E**spainiako Auzitegi Nazionalak bi urteko kartzela zigorra ezarri dio Arnaldo Otegi ezker abertzaleko kideari, 2005. urtean Jose Mari Sagardui *Gatzak* presoari Zornotzan egin zioten omenaldian terrorismoa goratu izana leporatuta. Kartzela zigorraz gain, hamasei urteko inhabilitazioa ere ezarri dio Otegi-ri. Auzi berean auzipetutako beste lau lagunak absolbitu egin dituzte.

Jose Mari Sagardui *Gatzak* 29 urte daramatza preso. Duela lau urte, espetxeratu zuteneko 25. urtemugan, ekitaldi politiko bat egin zuten Zornotzan haren omenez. *Gatzak* 1995. urtean bete zituen espetxealdiaren hiru laurdenak, eta libre egon beharko zuela aldarrikatu zuten. Ekitaldi hura Eusko Jaurlaritzak baimendutakoa izan zen, baina Ermuko Foroak kereila jarri zuen, ekitaldian "terrorismoa goratu" zela arrazoituta. Iazko azaroaren 25ean, Fernando Andreu epaileak auzipetze autoa kaleratu zuen, akusazioarekin bat eginez.

Arnaldo Otegi gain, Itziar Galardi, Josune Irakulis, Jon Enparantza eta Estanis Etxaburu auzipetu zituzten auzi hartan, ekitaldian parte hartu zutelako. Etxaburuk ekitaldirako deia egin zuen, Irakulisek ekitaldirako zein ondoren egin zen manifestaziorako baimenak eskatu zituen Zornotzako Udalean, eta Otegi, Enparantzak eta Galardik, berriz, ekitaldian berba egin zuten. Horregatik, Otegiarentzat hemezortzi hilabeteko kartzela zigorra eta hamalau urteko inhabilitazioa eskatu zuen Blanca Rodriguez fiskalak; Galardi eta Etxabururentzat ere hemezortzina hilabeteko kartzela eskatu zuen, Enparantzarentzat hamabostekoa eta Irakulisentzat, absolutuzioa.

### Hiru auzi, Otegiaren kontra

Hiru auzi daude zabalik, Arnaldo Otegiaren kontra: Mahai Nazional berria osatu nahi izanagatik, 2004an Anoetako belodromoan ekitaldia egiteagatik eta herriko tabernen auziagatik. Herriko tabernen bidez ETA finantzatu nahi izana egozten diote.

## Lanpostuak zaintzeko eskatu dute ehunka lagunek, LABek deituta

"Kapitalismo ase ezinaren ondorioak" ezin direla langileen bizkar laga salatu zuten zapatuan Eibarren, Debabarreneko LABek deituta. Krisiaren aitzakian lan baldintzak nabarmen eskatu direla salatu zuten, eta eskualdeko lanpostuak zaintzeko exijitu zieten ardura-dunei. Antolatzaileen arabera, 600 lagun baino gehiago batu ziren manifestazioan. Ondoren, agiri bat irakurri zuten Untzaga plazan, eta bertan, gure eskualdean 3.000 langabe baino gehiago daudela ohartarazi zuten.



## Jose Ignacio Munilla gotzainak eman zuen meza domekan



Jose Ignacio Munilla Gipuzkoako gotzainak eman zuen 11:30eko meza domekan. Iragarrita zegoen zeterrela, eta San Bartolome parrokia lepo bete zen eliztarrez. Meza ostean, Lourdesko Ama Birjinaren Ospitalitatea elkartearen urteko batzarra egin zuten parrokian bertan. Nolanahi ere, parrokian meza eman aurretik, Santa Klarako komentuan izan zen Jose Ignacio Munilla, eta hango elizkizunetan parte hartu zuen.



## Izena **Teodosia Iriondo**



103 urte egiteko hilabete eskas falta zitzaiola hil zen Teodosia Iriondo, otsailaren 28an. 1907ko apirilaren 2an jaio zen Teodosia, San Frantzisko kalean. Alpargatagintzan egiten zuen lan gaztetan eta gero Madrilerira joan zen neskame. Hantxe ezagutu zuen gerora bere senarra izango zena. Etxe berean zegoen lanean, ebanista zen. Ezkondu eta Madrilén bizi izan zen senarra hil arte. Gero, alabarekin itzuli zen Elgoibarrera.

## Zenbakia **108.000**

Udalak 108.000 euro erabiliko ditu eskailera mekanikoen mantenu lanak egiteko. Bi urterako kontratua sinatu du lanak egingo dituen enpresarekin. Guztira 11 eskailera atal daude herrian, lau gunetan banatuta: Urasandin (5 atal), Errotaberrin (2 atal), Artekalen (2 atal) eta Sigma auzoan (2 atal). Aurrerantzean, Basarte auzoan jarriko dituzte beste bi atal.

## Irudia **Ziklogenesiaren eraginak**

Ziklogenesia zapatu gauean iritsi zen Elgoibarrera, eta haize bortitzaren eraginak nabari ziren domeka goizean. Baserri auzoetan hainbat zuhaitz bota zituen haizeak, eta San Frantsizko kalean, ibaira ematen duen kalekkan, telatutik eroritako antena eta uralitazko xaflen arrastoak ikus zitezkeen oraindik astelehenean. Kalterik larriena, baina, 23 urteko gazte batek jasan zuen: zapatu gauean AP-1 autopistako kartel bat bota zuen haizeak, eta elgoibartarraren autoaren gainera erori zen. Gaztea larri zaurituta dago.



## **Baserrietako energia kontsumoa neurtuko dute**

Elgoibarko landa eremuan dauden 203 baserri edo etxebizitzien ugazabek zenbat energia erabiltzen duten jakin ahal izango dute, eta, hala nahi badute, euren beharrak asetzeko energia berritagarri egokiena zein den jakiteko ikerketa egingo die Elgoibarko Efitermik enpresak. Ikerketa bakoi-tzak 350 euroko kostua dauka. Udalak eta Efitermik enpresak adostutako akordioari esker, erdia Udalak ordainduko du, eta, beste erdia, eskatzaileak. Momentuz, ikerketak Ehun baserrian egiteko adina diru dago.

## **Aiastia-San Migel auzora ura eramateko lanak aurten amaitzeko asmoa du Udalak**

Aiastia-San Migel auzoetako baserrietara ura eramateko lanen bigarren fasea 2010ean amaitzeko asmoa du Udalak. Eguraldi txarraren ondorioz, lanak atzeratu egin dira, baina lehen fasea amaitzear daude dagoeneko. Bigarren eta azken fase horretan, sare nagusitik baserrietara ura eramateko bideak jarriko dituzte. Proiektu horretan auzoko baserri guztiak sartzen badira, 700.000 euroko aurrekontua izango dute. Uraren Euskal Agentziak, Foru Aldundiak, Udalak eta bizilagunen artean ordainduko dute.

## **Zaharren egoitzan egonaldiak, Aste Santuan**

Aste Santuko oporraldian zaharren egoitzan egonaldiak egiteko egitasmoan parte hartzeko epea zabalik dago. Martxoaren 12a izango da Foru Aldundiak antolatutako egitasmoan izena emateko azken eguna. Udaleko Ongizate Sailak esandakoaren arabera, egitasmoan parte hartzeko plazak mugatuak dira. Informazio gehiago eskuratzeko Ongizate Sailera deitu daiteke: 943 741 008.



## Arantza Alvarez

Psikologoa eta sexologoa

Haizeak antolatuta, emakumearen sexologiari buruzko ikastaroa eskaintzen dihardu Arantza Alvarez psikologoa eta sexologoak. Gizonen eta emakumeen sexualitatean dauden desberdintasunak aztertu dituzte, eta baita biek komunean dituzten ezaugarriak ere. Sexologia saioak martitzenetan izaten dira, 18:30etik 20:30era, eta emakumeentzat ez ezik, ikastaroa gizonezkoentzat ere interesgarria dela adierazi du.

Ainhoa Andonegi

## “Oraindik ez ditugu gainditu erlijioak sexualitateari ezarri dizkion mugak”

### Zein desberdintasun dago emakumeen eta gizonen sexualitatean?

Desberdintasunak asko dira, baina komunean ere badituzte ezaugarriak. Gizona, esaterako, ikusten duenarekin berotzen da. Emakumeak, aldiz, ukimena behar du. Laztanak eta ferekak ezinbestekoak dira emakumearen sexualitatean. Gizonaren erotismoa, genitaletan zentratzen da, bereziki, eta emakumearena zabalagoa da.

### Zein da bikote harreman orekatuaren oinarria?

Errespetua. Bikotekide bakoitzak bere espazioa eduki behar du pertsona moduan garatzeko, eta biek maila berean egon behar dute. Horrez gain, konfiantza, komunikazioa eta batak bestea babestea ezinbestekoa da. Azken batean, batak bestearekin partekatu behar du bizitza. Pasioa, erakarpen sexuala eta konpromisoa ere garrantzitsuak dira. Bizi proiektu bakarra izan behar dute, eta norabide berean joan behar dute.

### Freudek esana da sexualitateak jaiotzetik heriotzera arte irauten duela. Adinarekin sexualitatea aldatu egiten da?

Bizitzaren etapa bakoitzean modu batean bizi da sexualitatea. Horrek ez du esan nahi, baina, adinarekin sexurako gogo gutxi egiten denik. Sexu nahia gutxitzea pertsonaren egoerari lotuta dago, eta ez adinarekin. Osasun egoerak, eta bikotekidearekin daukazun harremanaren kalitateak baldintzatzen du sexu nahia. Normalean, bizimodu sexual osasuntsua izan duenak, heldutasunean ere behar bezalako sexualitatea izango du.

### Menopausiak badauka eraginik emakumearen sexualitatean?

Menopausiaren sintomak deserosoak ez badira behintzat, emakumearen sexu nahia ez dauka zertan gutxitu. Askotan guztiz kontrakoa gertatzen da, eta sexualitatea hobetu egiten da meno-

pausiarekin. Haurdunaldiaren kezkarik ez dago, eta ez dauka antisorgailuez arduratu beharrik. Adin horretan, gainera, emakumeak oso ondo ezagutzen du bere gorputza, eta sexuarekin gehiago goza dezake.

### Emakume batzuek orgasmo asko izaten dituzte sexu harremanetan, eta beste batzuek ez dute orgasmorik izaten. Zertan datza?

Kasu bakoitza desberdina da. Emakume batzuk lotsatu egiten dira sexu harremanetan, eta euren nahiak azaltzeko zailtasunak izaten dituzte. Beste batzuek arduraz asko izaten dituzte, eta ezin izaten dute eguneroko bizimodutik deskonektatu. Horrek guztiak eragina dauka orgasmoan. Bikotekidea sexualki ondo ulertu behar da, eta sexu ohiturak aldatzea ere komeni izaten da.

### Zein neurri har daiteke bikotea batera iristeko orgasmora?

Hasteko esan behar dut ez dela erraza orgasmoa lortzea; orgasmora ez iristea ez da porrota, eta ez da gaizki hartu behar. Bakoitzak bere erritmoa dauka, eta gauza askok baldintza dezakete orgasmoa. Egunaren eta momentuaren arabera, bikotekide bakoitzak bere momentua dauka, eta ez da erraza bakoitzaren momentu horiek bat etortzea. Bikotekidearekin sexu lotura handia izatea beharrezkoa da, bakoitzaren berotasun maila bestearen mailara egokitu, eta orgasmoa biek batera lortu ahal izateko.

### Sexualitatearen inguruan tabu asko daude: masturbazioa, nudismoa... Nola gainditu daitezke?

Sexuaz argi eta garbi hitz eginez. Taburik eta morborik gabe hitz egin behar da sexuaz. Norberaren aukerak errespetatuz, jendea hezi egin behar da, eta ez doktrinatu. Nik eskaintzen ditudan moduko ikastaroek asko laguntzen dute horrelako gauzetan. Gune



irekia da, galderak egin eta norberak pentsatzen duena libreki azaltzeko aukera eskaintzen dugu-eta.

**Etxe askotan, sexualitatea bera ere tabua da, eta umeen jakinminak baztertu egiten dira. Noiz hasi behar da umeekin sexuaz hitz egiten?**

Hasieratik, umeak diren momentutik hitz egin behar zaio umeari sexuaz. Ume batek sexuari buruzko galderaren bat egiten duen unean, bere adinerako ego-kia den erantzuna jasotzeko prest dago. Kuriositate hori umearen garapenaren parte da, eta modu naturalean erantzun behar zaio.

**G puntuaz asko hitz egiten da. Zer da eta nola aurkitu daiteke?**

G puntua baginaren barrualdeko hormaren zona bat da. Puntu hori estimulatzean plazer handia sentitzen du emakumeak. Zona hori bilatzeko atzamarrak erabiltzen dira. Garrantzitsua da emakumea berotuta egotea, G puntua handitu egiten delako. Emakumea ez badago kitzikaturta, oso zaila da G puntua aurkitzea. Zakilarekin G puntua aurkitzea ez da ezinezkoa, baina oso zaila da.

**Emakumeek nolako amets erotikoak izaten dituzte?**

Emakumeek landutako istorioekin egiten dute amets. Ez dira sexu unean soilik zentratzen, eta istorioari informazio txiki asko gehitzen diote. Istorio horien edukiak desberdinak izaten dira emakume bakoitzaren arabera. Imaginazioa librea da. Amets erotikoen gunea pribatua eta pertsonala da. Ez dauka leialtasun ezarekin zerikusirik, eta ez da gaizki sentitu behar amets erotikoak edukitzeagatik.

## **“Sexu nahia gutxitzeak pertsonaren egoerarekin dauka zerikusia, eta ez adinarekin”**

**Abortuaren lege berria onartu dute. Zein iritzi daukazu horri buruz?**

Gizartea beti doa legeen aurretik, eta gure artean geneukan errealitatea arautzeko garaia bazela iruditzen zait. Emakume asko egon izan dira egoera horretan, eta ez da erabaki erraza izaten. Arrazoizko epealdian haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeei ez diegu traba gehiago jarri behar. Emakumeak egoera arriskutsuetan egon ez daitezen, sexu heziketa ona ezinbestekoa da.

**Erljiioak muga handiak jarri izan dizkio gure aurreko belaunaldiari sexualitateari dagokionean. Gainditu ditugu muga horiek?**

Oraindik ez ditugu gainditu erlijiokoak jarritako muga guztiak. Denbora gehiago behar dugu sexualitatea erlijiokoaren eraginetik libre sentitzeko. Askotan pentsa dezakegu erlijiokoaren muga guztiak gainditu ditugula, baina ez dugu ahaztu behar gure belaunaldia aurrekoak hezi duela. Heziketa horretan beraien mito eta beldurrak transmititu dizkigute; homofobia, esaterako, sexualitate heterosexuaren ikuspuntua da, eta hori Elizak sustatu du.

**Sexu segurua izateko aholkuren bat?**

Presebatibo! Eta, baita ere, informazioa. Sexu harremanetan zalantzarik ez edukitzeko, informazioa ezinbestekoa da.



# Amalurra

## Arto eta gari sailak txikitu, eta ortuak hazi

**L**urrari lotuta bizi dira baserritarrak, eta inork baino hobeto dakite zelan zaindu behar den. Garai batek hona, baina, dezente aldatu da lurra lantzeko modua, baserria bera ere aldatu delako, hein batean. Eskuz egiten zen lana makinekin egiten da gaur egun leku askotan. Era berean, bukatu dira garai bateko arto, gari edota arbi sail handiak ingurutuan, eta haren lekuan, ortuak hazi dira. Zekaleak baino gehiago barazkiak hartzen dira gaur egun gure inguruetako baserrietan, etxerako nahiz saltzeko. Eta ondorioz, lan egiteko modua ere aldatu egin da.

Orain asko ez dela arte, arto eta gari sail handiak izaten ziren sasoiak, lurrari atsedena ematen zitzaion. Lur hori goldatu eta prest-prest lagatzen zen beste edozer ereiteko. Laia eta goldea erabiltzen zuten bereziki horretarako. Hanka biko eta kirten luzeko tresna da laia. Lurrean sartu, hankarekin bultza egin, eta lurrari buelta ematen zitzaion harekin, lurra harro-harro lagatzeko. Laia pasatakoan, burdinarela pasatzen zuten gero leku askotan, lurra aretu edo solte-solte lagatzeko. Goldeak, baina, lekua jan zion laiari, bereziki soro handiak eta lau xamarrek zituzten etxeetan. Soro txikie-



tan laiaz gain, aitzurra ere erabiltzen zen, lurra lantzeko. Behin landutakoan, ereiteko prest izaten zen.

Orduan, baina, urte batean garia ereiten bazen, hurrengoan artoa ereiten zen lur sail berean, edo ezer erein gabe lagatzen zen, bestela. Modu horretan, atsedena ematen zitzaion lurrari. Lur sail hori

barazkiak landatzeko ere erabiltzen zen batzuetan. Ohikoa zen, esaterako, arto artean babarruna ereitea, edota sail er-tzetan tomateak landatzea. Gaur egun, hala ere, oso jende gutxik ematen dio lurrari atsedena. Ortu sail guztia aprobetxatzen da, eta nekez lagatzen da zatirik ezer erein edo landatu gabe.

## Sasoiak sasoiak

### Aza

Neguko barazkia da aza, *Brassica olerace*-en familiakoa. *Brassica olerace*-ak Europa hego-mendebaldeko kostaldekoak dira jatorriz, gatz askoko lurreta-koak. Aza oso estimatua da neguko otordu oparoetan. Hosto leuneko azal-orea esaten diote Espainiako eta Portu-galgotz hainbat lekutan, eta etxe apaleta-ko jakitzat hartzen dute askok.

Aza aberatsa da oso C bitaminan. Hala, azaren hostoekin egindako zumoa

oso ona izan daiteke eskorbutu gaitza saihesteko. Era berean, ama izan berri direntzako ere egokia izan daiteke. Izan ere, umea izan eta bost egunerako aza-ura hartzen hastea lagungarri izan daiteke, esne gehiago sortzeko. Era berean, parranda egin osterako ere ona da, biharamona arintzen duelako.

Txikoria, berakatza, brokolia, kardoa, uraza, porrua, erremolatxa, eta espinaka ere sasoi honetakoak dira.







## Mari Tere Arrate

### Barazki ekoizlea

**Markinako Olazar Behe baseritik Eguen Txiki baserrira ezkondu zen Mari Tere Arrate, orain 39 urte, eta handik urte gutxira hasi zen Elgoibarko plazara jaisten, Franziska Ansola amaginarrebari erreleboa hartuta. Gustuko lana du plazakoa, baina orain laga beharra iritsi zaio. Belauneko ebakuntza egin behar diote, eta ospitaletik eguna zehazteko zain dago, bezeroei agur esateko.**

## “Kirofanora sartzeko beldurra baino handigoa da plaza lagatzeko daukadan pena”

### Laster lagako diozu plazara jaisteari. Penarik ematen dizu?

Itzela. Ni gustura joaten naiz plazara. Ez arranke handia egoten delako, baina tertulian jardun, ingurukoekin eta datozen apurrekin berriketan egin... Nahi beste asti daukagu plazan berriketarako, oso erosle gutxi dabil-eta. Atzo ere, [joan zen eguenean] 10:30ean arrautza dozena bat saldu barik geunden han. Azken orduan hasi zen jendea etortzen, txiritxiri, eta azkenerako nahikoa egun polita izan zen. Pena handia hartuko dut, baina. Nik beti esaten dut kiroyanora sartzeko beldurra baino handiago dela plaza lagatzeko daukadan pena.

### Egunero jaisten zarete plazara?

Ez, eguenean bakarrik, eta bera ere nahikoa eta lar. Plaza zeharo eskatu zen kinkilleroak Sigmara eraman zituztenean.

### Noiz hasi zinen plazara jaisten?

Eguen Txikira ezkondu ostean. Markinatik hona etorri nintzenean ama joaten zen, gizonaren ama, baina gauza ez zela gelditu zenean, neu hasi nintzen haren arrastoan. Orain 90 urte ditu amak, Franziskak. Ni hasi nintzenean jende asko igotzen zen plazara, baina orain beheko fruta saltzaileek ere ez ei dute ezer saltzen. Plazara etortze-ari laga dio jendeak. Ezkutuan ere bagaude, baina ez dut uste horregaitik denik. Eibarren bista-bistan daude, baina han ere zeharo eskatu ei da plazako kontua. *Todo a cien*-ak eta denda handiak daude orain jendez gainezka. Dena kanpotik dator, baina merke, eta jendeak ez du besterik ikusten.

### Eguenetan jaisten zarete plazara, baina noiz hasten zarete preparamen?

Bezperatik hasten gara gu lanean. Produktu onenak batu eta prest-prest lagatzen ditugu plazarako. Nire alabak zenbat bider esan ote dit: “Ama, zuk letxuga ederrenak plazara eramaten dituzu, eta etxerako eskasnak laga”. Eta zera esaten diot nik: “Igartzen da zu ez zabiltzala saltzen. Saltzen ari bazina zer egingo zenuke, etxean ederrenak jan eta saltzeko eskasnak eraman, ala?”. Onak saltzen ere nahikoa lan izaten dugu, eta eskasekin zelan joango gara! Erostera datorrenarentzako dena dago garesti, baina jakingo balute zenbat lan egin behar izaten den...

### Leku aldapatsuak dira, gainera, zuenak. Zelan moldatzen zarete?

Moldatu egin behar, ez dago besterik. Goiko aldera daukagu ortua,

errepidearen gaineko aldetik. Leku aldapatsuak dira, eta gero eta gehiago kostatzen zaigu. Egia da lau-laua ere ez dela ona, gerri makurrean jardun behar izaten delako beharrean. Azkeneko bost-sei urtean aitzur-rarekin egiten dugu guk dena, orain 40 bat urte moduan. Lehen makinarekin goldatzen genuen lurra, baina orain ez gara gauza. Gizona ibiltzen zen makinarekin, eta ni goiko aldetik tiraka sokarekin, irauli ez zedin. Hala eta guztiz, zenbat bider ez ote zen irauli!

### Zer da zuek gehien saltzen duzuen?

Porrua. Letxugak-eta gehiago sobratzen dira.

### Zer nolako bezeroak izaten dira plazakoa?

Beti-beti etortzen direnak dira asko. Haiei esker bizi gara gu. Erosle gehienak zahar xamarak dira, eta haiek amaitzen direnean amaituko da Elgoibarko plaza. Baserritik kalera ezkonduak dira txarrenak. Horrek amorrarazten nau. Jakin baserriko lana zenbat kostatuko den, eta hala eta guztiz ere, merketzeko eskatzen beti. Bost euro eskatzen baduzu, hiru nahi. Denda handietan isil-isilik ordaindu beharko dute eskatutakoa, baina hemen... Zahar-zaharrak ere txarrak dira. Dirua estimatu izaten dute horiek. Umea hazi ezinda dabilzan gazteak eta sa-soiko jendeak, oster, ezer esan barik ordaintzen dute eskatutakoa. Ordaintzen onenak, baina, gizonezkoak dira.

### Elgoibarko plaza asko aldatu da zu hasi zinetik hona?

Bai. Lehen ez zen orain beste asti izaten berriketarako. Orduan metro bat bakarrik izaten genuen, eta sartu ezinda ibiltzen ginen. Orain, berriz, ia lau metro ditugu bakoitzak. Berriztik ere etortzen zen jendea lehen, baina zaharrak erretiratu zirenean, handik ez zen besterik etorri. Eta asmatu zuten! Hobe da tailerlean edo beste nonbaiten ibili plazara etorri baino. Lehen 40 bat pezeta ordaintzen genuen plazan egoteagatik, baina Karmelo plazeroa hil zenetik, debalde daukagu. Plaza bete-beteta egoten zen orduan, eta orain, berriz, zortzi bat baserriakoa etortzen gara bakarrik. Etortzeko modua ere aldatu da. Gure ama oinez etortzen zen, estrata zuloetatik behera, traste guztiak asto gainean hartuta. Ni hasi nintzenerako, baina, errepidea eginda zegoen, eta gu beti autoz ibili gara.

### Zelan ikusten duzu plazaren etorkizuna?

Beltz. Guretik ez da inor joango nik lagatakoan, eta besteetatik ere, nekez. Laster joko du hondo Elgoibarko plazak, atzetik ez dator inor eta.



# Egitarau zabala antolatu dute Elgoibarren eta Mendaron Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan

Astelehenean, martxoak 8, elkarretaratzea izango da Plaza Handian, 19:00etan

**E**makumearen Nazioarteko Eguna da astelehenean, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna aldarrikatzeko eguna. Hori dela eta, Elgoibarko eta Mendaroko udaletako Kultura eta Berdintasun sailek hainbat ekintza antolatu dituzte. Eguaztenean, *krisi ekonomikoaren eragina emakume eta gizonen arteko parekidetasunean* izenburuko mahaingurua izan zen Kultur Etxean. Ekonomia eta lanbide hezkuntzan adituak diren lau lagun batu zituzten, krisiak emakumearengan izan duen eragina aztertzeko.

## Ipuinak, antzerkiak eta elkarteratzea

Zapatuan, *Modelo Clowntrapublicitaria* izenburuko clown ikuskizuna izango da Kultur Etxeko sotoan. Publizitatearen eremuan emakumearen estereotipoaren gaineko gogoeta egingo du Oihulari Klowneko Virginia Imazek, umoretik eta kritikatik. 22:00etan hasiko da ikuskizuna, eta sarrerak egunean bertan erosi beharko dira sotoko sarreran.

Astelehenean, berriz, “sexismorik gabeko ipuinak” irakurriko ditu Sonia Villamor Urtxintxako ipuin kontalariak, Elgoibarko Udal Liburutegian. Bi saio izango dira: lehenengoa, 17:00etan, haur hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailako haurrentzat, eta 17:30ean bestea, lehen hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoentzat.

Egun berean, Mendaron, *Zuhaitzak zutik hiltzen dira* antzezlanak izango da. Alejandro Casonaren lan batean oinarritutako antzezlanak da, eta Orratz Antzerki Taldeko Lierne Fresnedoak zuzendu du. 19:30ean hasiko da antzezlanak, San Agustin kulturgunean. Antzezlanak euskaraz izango da, eta ordu eta laurden inguru iraungo du. Tarte horretan, ludoteka zabalik egongo dela jakinarazi du Mendaroko Udalak, antzerkira joan nahi duten gurasoen seme-alabentzako. 19:00etatik 21:00ak arte egongo da zabalik ludoteka, doan.

Era berean, eta Elgoibarko Emakumeen Asanbladak deituta, elkarretaratzea egingo da astelehenean, Elgoibarko Plaza Handian, 19:00etan. *Gora emakumeen borroka* izango du leloa, eta ondoren, “poteo feminista” egingo da herriko tabernetan zehar. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, eta Euskal Herriko Mundu Martxari lotu-



Nekane Jurado, Asun Larrañaga, Josune Gardoki eta Joxean Egaña izan ziren mahainguruko hizlariak.

ta, martitzenean mural bat marraztu zuten Maltzagan, depuradora ondoan. Herri zentroan egin diren mural guztiak Iruñean jarriko dituzte erakusgai, domekan.

Gaur zortzi, berriz, *El club de las mujeres invisibles* antzezlanak ikusteko aukera izango da, Elgoibarren, Herriko Antzokian. Fernando Bernuesek zuzendu du lana, eta antzezlanean zehar zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da. Iñaki Salvador ariko da pianoa jotzen, eta Ainara Ortegak jarriko du ahotsea eta biolina. 22:15ean hasiko da antzezlanak eta sarrerak 8,5 euro balioko du. Gazte txarteldunak, baina, sei eurotan sartu ahal izango dira. Sarrerak lehiatilan ere erosi ahal izango dira.

## Patchwork erakusketa

Haizea emakume taldeak ere zenbait ekintza antolatu ditu martxoaren 8a dela-eta. Gaur, 19:00etan, Patchwork erakusketa inauguratuko dute Kultur Etxean, eta hilaren 14ra arte egongo da zabalik. Oihaltzatiki elkarrekin josiz eginiko lanak izango dira ikusgai. Lan horien egi-leetako bi elgoibartarrak dira: Isabel Azkue eta Mertxe Lapedriza. Biek gustuko dituzte eskulanak, eta patchwork teknika ikasten hasi ziren orain dela urte batzuk. Dagoeneko hainbat lan egin dituzte, eta Haizeak jendaurrean erakusteko eman dien aukerarekin “pozik” daude.

Biharko, barreterapia saioa antolatu dute. 10:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, eta ondoren, emakumearen aldeko bazkaria egingo dute Sigma jatetxean.



Emakumeen Asanbladak mural bat marraztu du Maltzagara bidean.

## Manuel Salegi eta Pedro Garate txapelkunorde izan dira Euskal Herriko mus txapelketako Gipuzkoako kanporaketan

Martxoaren 20an Euskal Herriko finala jokatuko dute, Seguran

**E**uskal Herriko mus txapelketako Gipuzkoako kanporaketan bigarren postua eskuratu dute Manuel Salegi eta Pedro Garate elgoibartarrek. Elgoibarko kanporaketa irabazita sailkatu ziren Gipuzkoako faserako. Guztira, 83 bikotek hartu zuten parte Seguran. Salegi eta Garate primeran moldatu ziren hasieratik, eta azken jokorako sailkatzea lortu zuten. Martin Arrizabalaga eta Juan Mari *San Juan Txiki* mutrikuarrak izan zituzten aurrez aurre, eta puntu bakarreko aldeagatik, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

### Finala, martxoaren 20an

Bigarren postu horrekin, Euskal Herriko txapelketako finala jokatzeko sailkatu dira. Finala Seguran jokatuko du-



te, martxoaren 20an. Guztira 128 bikotek jardungo dute jokoan. Muslari elgoibartarrek aitortu dute, ez dela erraza

izango irabaztea, baina txapela Elgoibarrera ekartzeko ahaleginak egingo dituzte.

## Maria Anjeles Zabalak irabazi du Soraluzeko San Blas opilen lehiaketa, bigarren urtez



Maria Anjeles Zabalak neurria hartu dio Soraluzeko San Blas opilen lehiaketari, eta bigarren urtez jarraian irabazi du. Hirugarren aldiz antolatu dute lehiaketa, eta elgoibartarrak hiruretan hartu du parte. Lehenengo urtean bigarren egin zuen, eta ondorengo bietan, lehenengo. Aspaldi hasi zen San Blas opilak egiten, eta "oso onak" irteten zaizkiola adierazi du. Urtero jasotzen ditu opilak egiteko enkarquak, eta urte batean 40 kilo San Blas egin zituela azaldu du. Opilen arrakastaren sekretua labean dagoela aipatu du Maria Anjelesek: "Osagaiak betikoak dira, baina labean denbora gutxi edukitzea da sekretua". San Blas eguna oso berezia dela adierazi du Maria Anjelesek. Urtero bere jaioterrira, Soraluzera, joaten da egun hori ospatzera. San Blas opilak bedeinkatu eta gero lagunekin egiten du bazkaria. Soraluzen tradizio handia dauka San Blas egunak, eta Maria Anjeles bera, hamasei hilabeterekin eraman zuen amak estreinakoz, San Blas opila bedeinkatzera.

### Karta jokoak antolatu ditu jubilatuen egoitzak

Jubilatuen egoitzak antolatuta, karta joko txapelketak egingo dira martxoaren 16an eta 17an. Mus, briska, tute eta seikoetan jokatuko dute. Parte hartzeko interesa dutenek aurrez eman behar dute izena, egoitzako zuzendaritzaren bulegoan. Jubilatuen egoitzak, bestalde, urteko batzar orokorra egingo du datorren barixakuan, martxoak 12, 18:00etan.

### Martxoaren 15ean amaituko da Trinitate azokarako izena emateko epea

Udalak eta Debemenek antolatuta, maiatzaren 29an Trinitate jaietako azoka izango da. Elgoibarko baserriar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta, eta, interesatuek martxoaren 15a baino lehen eman beharko dute izena. Informazio gehiago 943 744 067 telefonon.

## Hiru elgoibartarrek Transgrancanaria lasterketan hartuko dute parte

30 ordu izango dituzte proba amaitzeko

**E**duardo Uribe, Jon Revert eta Manolo Ramos elgoibartarrek Kanaria Handiko Transgrancanaria lasterketan hartuko dute parte. Martxoaren 4an, 5ean eta 6an izango da lasterketa, baina Elgoibarko korrikalariak asteburuan hartuko dute parte. 123 kilometroko luzera izango du lasterketak, eta partaideek 30 ordu izango dituzte proba amaitzeko.

Jon Revertetik eta Manolo Ramosek lehenengo aldiz hartuko dute parte proban, baina Eduardo Uribek ezagutzen du dagoeneko lasterketa. Elgoibartarrak iaz hartu zuen parte Kanariar Uharteetako proban, eta 22 ordu behar izan zituen.

Uribek, hala ere, beste helburu bat dauka 2010erako: Mont Blanc-eko ultratraila egitea da bere nahia, baina horretarako, beste hainbat lasterketatan parte hartzeagatik ematen dizkieten puntuak behar ditu. Transgrancanaria egiteagatik, esaterako, hiru puntu ematen dituzte. Horrez gain, Euskal Herrian sekula egin den mendi lasterketarik gogorrenetakoan parte har-



tzeko asmoa ere badu, Ehunmilak ultratrailan, eta antolakuntza lanetan ere badiharditu gainera.

Jon Revert antxintxikariak, bestalde, Hiru Handiak proban parte hartuko du.

### Javier Varona bigarren, Euskadiko arku tradizional txapelketan

Javier Varona elgoibartarra bigarren postuan sailkatu da Euskadiko Arku Tradizional txapelketan. Otsailaren 20ko asteburuan jokatu zuten txapelketa Gasteizen, eta sailkapen fasean lehenengo postua lortu bazuen ere, bigarren lekuan amaitu zuen txapelketa nagusia. Iñaki Badiolak, berriz, laugarren postua lortu zuen arku errekuratua alorrean. Azken honek, taldekako txapelketan ere hartu zuen parte Martin Agirregomezkorta eta Itzargi Monasterio elgoibartarrek. Hirukoteak laugarren postua eskuratu zuen.

### Arrasatetik Urkiolara, hilaren 13an, Morkaikorekin

Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, Arrasatetik Urkiolara egingo dute ibilaldia martxoaren 13an. Udalaitz azpiko maldak zeharkatuko ondoren, Anboto eta Durangaldeko beste zenbait mendi ikusteko aukera izango da. Ibilbidea Urkiolako parke naturalan zehar egingo dute. Sei ordu inguruko ibilaldi erraza izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Bazkideek 7 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 10. Interesatuak Morkaiko mendizale elkarteak Errosario kalean duen lokalean eman dezakete izena. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera idatzi dezake.

### Debarroko Eskolarteko txapelketako finala jokatuko dute Lagunak taldekoek gaur gauean ikastolako frontoian

Lagunak taldeko pilotariak Debarroko Eskolarteko txapelketako finala jokatuko dute, infantil mailan. Ioritz Idigorasek Mikel Agirrebeña izango du aurkari, Iker Calvok Mikel Gurrutxagaren aurka neurtuko ditu indarrak, eta Jon Arakistainek Igor Loidi izango du aurrez aurre. Norgehiagoka 21:30ean hasiko da, ikastolako frontoian.

Ondoren, Lagunak taldeko bigarren mailako nagusiek Udaberri Txapelketako finalurrekoa jokatuko dute Bergarako taldearen kontra.



I. URTEURRENA

## ANICETO ANSOLA ARRIETA

“Azkuba”

2009ko martxoaren 6an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, martxoak 6, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.





# Tecnifuelle eta Alcorta eskubaloi taldeak mailaz igotzeko bidean dira

Bigarren postuan da bata, eta hirugarrenean, bestea



**S**enior mailako Tecnifuelle eta Alcorta Forging Group eskubaloi taldeak mailaz igotzeko bidean dira. Joan zen asteburuan partida garrantzitsuak jokatu zituzten, eta biek irabazi zuten. Horri esker, Alcorta Forging Group taldea (mutilak) bigarren postuan dago, liga amaitzeko hiru partida falta direnean. Aurten igoera lortzen badute, jarraian lortzen duten bigarren igoera izango da.

Tecnifuelle nesken taldea, bestalde, hirugarren postuan dago, Kukullaga bizkaitarrak baino puntu bat gutxiagorekin, eta Urdaibai liderrak baino bost puntu gutxiagorekin. Datorren asteburuan partida erabakigarria izango dute elgoibartarrek. Kukullagaren kontra jokatu dute, eta igoera faserako sailkatzea egongo da jokoan.

## Mintxeta atletismo taldeak laugarren postua lortu du infantil mailako Euskadiko kros txapelketan

Mintxeta taldeko korrikalariek laugarren postuan amaitu zuten infantil mailako kros txapelketa, taldekakoan. Korrikalaririk onena Lorea Santiago izan zen. Hamabigarren postua eskuratu zuen elgoibartarrek, 10:44ko denborarekin. Maddi Astigarraga hamaseigarrena izan zen, 10:48 denborarekin. Andrea Arrieta izan zen elgoibartarren artean hirugarrena, eta sailkapen nagusiko 21. postuan amaitu zuen lasterketa, 10:54 denborarekin. Laugarren elgoibartarra Leire Olazabal izan zen 11:34ko denborarekin, eta 29. postuan sailkatu zen.



Lorea Santiago izan zen elgoibartarren artean onena.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Cultural Durango 0 (3. maila)  
Elgoibar 1 – Sporting Herrera 1 (Kad. A.)

### ESKU PILOTA

#### Udaberri Txapelketa

Arrasate 22 – Lagunak 13 (1. mailako nag.)  
Lagunak 13 – Lizardi Igeldo 22 (3. mailako nag.)

#### Debarroko Txapelketa

Lagunak 22 – Lagunak 6 (Nag.)  
Lagunak 21 – Eskoriatza 22 (Kad.)

#### Pala

Lagunak 25 – Alde Zaharra 25 (1. mailako nag.)  
Zarautz 25 – Lagunak 19 (1. mailako nag.)

### SASKIBALOA

Anbolo 18 – Bera Bera 47 (Neskak)  
Gabi 46 – Aluminios Alberdi 61 (Mutilak)

### ESKUBALOA

Tecnifuelle Elg. 26 – Muskiz 18 (Sen. nesk.)  
Soraluce 21 – Alcorta Elg. 29 (Jub. mut.)  
Aterpe 14 – Aiala B 24 (Inf. nesk.)  
Aiala A 16 – Ikus Elg. 16 (Kad. nesk.)  
Pulpo 9 – Casa Astigarraga Elg. 18 (Inf. nesk.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 6

13:00 Elgoibar – Bergara (Kad. B)  
16:30 Elgoibar – Mutriku (Pref.)  
18:30 Elgoibar – Beasain (Ohorezko jub.)

#### Domeka, 7

10:30 Elgoibar – Anaitasuna (Ohorezko inf.)  
12:30 Elgoibar – Kostkas (Inf. Txiki)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

#### Barixakua, 5

21:00 Alcorta Elg. – Aloña Mendi (Sen. mut.)

#### Zapatua, 6

11:45 Txariduna Elg. – Arrate B (Inf. mut.)  
13:00 Bankoa Elg. – Aloña Mendi (Inf. mut.)  
19:00 Lauko Elg. – Aiala Zarautz (Kad. nesk.)

#### Domeka, 7

10:30 Astigarraga Elg. – Amaña (Inf. nesk.)  
11:45 Ikus Elg. – Aiala Zarautz (Inf. nesk.)

### ESKU PILOTA

#### Barixakua, 5

21:30 Lagunak – Lagunak (Eskolarteko finala inf.)  
22:30 Lagunak – Bergara (2. maila nag.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Mutila kamarero lanetarako prest. Esperientziaduna. Papelak ditut. ☎671 405 061
- Neska euskalduna umeak zaintzeko edo beste edozein lanetarako prest. ☎676 482 121
- Ordukako lanen baten bila nabil: portalak garbitzen, nagusiak zaintzen edo tabernak eta elkarteak garbitzen aritzeko prest. ☎699 609 190
- Interna lan egingo nuke. Presazkoa. ☎660 651 569
- Bertako gizona (42 urte) edozein lan egiteko prest (gurpil aulkia duen gizonak zaintzen). ☎661 225 149
- Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎676 482 121
- Mutil gazte edozein lanetarako prest. ☎681 228 427
- Neska gaztea umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo dendari izateko prest. ☎699 477 611
- Neska gaztea lanerko prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Erreferentzietan. ☎686 420 642
- Emakumea garbiketa lanak egin edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎686 234 612
- Emakumea garbiketa lanak egin edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎638 344 377
- Emakumea edozein lanetarako prest. Goizeko 10:00etatik aurrera, gauetz ere bai. ☎618 052 967
- Edozein lan egiteko prest. ☎638 520 765
- Interna edo orduka lan egiteko prest. Etxeetan lan egiteko, sukaldari laguntzaile edo zerbitzari moduan aritzeko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎618 096 628

- Neska gaztea haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo tabernan lan egiteko prest. ☎657 142 376
- Igeltsero talde bat edozein erreforma egiteko prest. ☎650 987 612
- Gizonezkoa, bigarren mailako ofiziala, edozein lanetarako prest. ☎606 612 834
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎648 603 029
- Emakumea etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edo tailerrean lan egiteko prest. ☎685 761 979
- Klase partikularrak ematen dira. Maila eta irakasgai guztiak. Ingelesa ere bai. Adin guztietarako. ☎652 763 264
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Goizez. ☎626 329 979
- Mutila banatzaile lanak egiteko, eraikuntzan jarduteko, nagusiak zaintzeko edo zalamanetarako prest. ☎689 985 800
- Neska euskalduna, etxetz etxeko tituluarekin (UNED), nagusiak zaintzeko prest. Goizez. ☎675 711 658
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Geriatriako tituluarekin. ☎943 531 608
- Ostalaritzan lan egiteko prest. Janari landua prestatzen esperientzia daukat. ☎659 320 774
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Goizez, arratsaldez edo gauetz. ☎671 476 869

**ESKAINNTZA**

- Jatetxe batek sukaldari laguntzailea behar du. ☎943 743 196
- Jatetxe baterako sukaldari laguntzailea behar da. ☎943 121 262

- Bi kamarero behar dira: bata, aste barruan lan egiteko, eta bestea, asteburuetarako. Kontratuarekin. ☎662 327 003 (12:00etatik aurrera)

**ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Conilen (Cadiz) apartamentu zoragarriak alokatzen dira. Garajeekin. ☎ 653 733 457
- Etxea salgai Santa Klara kalean. Sukaldea, egongela, hiru logela eta komuna. Igogailua eta ganbara dauka. Dena kanpora begira. ☎ 664 585 369
- Lokala salgai Errosario kalean. Berria, lanera sartzeko moduan. Instalazio guztia eginda dauka. Masajista batentzako egokia. ☎ 616 175 672 (Txomin)
- Borda salgai Elgoibarren. Obretako baimena eta hektarea bateko lursaila ditu. ☎ 605 761 545

**GARAJEAK ETA MOTORRA**

- Citroen C5 HDI 110CV Premier salgai. 2004 urtekoa, 75.000 km. 8.000 euro. ☎ 635 208 887
- Santa Ana kalean, Ametsa parean, garajea alokagai. ☎ 615 787 857
- Santa Ana kalean marradun garajea alokagai, kottxea edo furgoneta bat sartzeko egokia. ☎ 646 966 198
- SEAT Ibiza salgai; 1.4, gasolina. SS-BH, 58.000 km. Merke, 2.200 euro. ☎ 659 358 141



# LE TE

## jantzi denda

**Martxoan %20ko deskontua traje eta osagarrietan**

Bono hau aurkezten baduzu opari bat emango dizugu




**San Frantzisko, 36 - Elgoibar - Tel.: 943 744 199**





• Udaberriko usaina ekarzen diguzu urtero. Zorionak, **Ainhoa!** Garazi eta Haizea.



• Zorionak, **Victor**, otsailaren 27an urtebete egin zenuelako. Muxu handi bat arreba Anaren partez! Asko maite zaitugu, pitufo!



• 32 urte, eta bigarren bonboixua! A ze astia, **Bidatz!** Zorionak.




• Zorionak, **Pello**, aitaixo eta amatxo, zuen artera Andde etorri delako.



• Zorionak, **Markel**, zure 3. urtebetetzean. Aitaixo, amatxo, aiton-amonak eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Iratzi!** Igandean zure 6. urtebetetzea ospatuko dugu! Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Urkoren partez.



• Zorionak, **Iker**, gaur 11 urte egin dituzulako. Muxu pila bat etxeko guztien partez, eta ondo pasa!



• Zorionak, **Yeral**, 2 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez, eta ondo pasa!



• Zorionak, **Adel**, martxoaren 9an 6 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Oxel** Atzo urtebete! Muxu potolo asko, etxekoan partez.



• Zorionak, **Ander**, gaur 4 urte egin dituzulako. Lau muxu potolo, familiakoan, eta bereziki, Mikelen partez.



• Zorionak, **Aitor**, eta muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Jone**, bost urte betetzean. Muxu handi bat gurasoen eta ahizparen partez.



• Larunbatian egun zoriontsu bat pasa dezazuela opa dizuegu. Familia eta lagunen partez. Muxu handi bat.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.**  
**Argazki bikoitza: 3 euro.**  
**Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.**  
 Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu.  
**BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen,**  
 edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 e-postara bidali.

**GIDA KOMERTZIALA**  
**2010**  
**AZKEN EGUNAK!**  
**AZKEN EGUNAK!**  
 Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:  
**943 743 704**  
 edo helbide honetara idatzi:  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**Olaisa**  
 Laser depilazioa

- Grasak gutxitu
- Gorputza gogortu
- Gorputza liraindu
- Lisatu

- Sesio bat: 35 euro
- Hamarreko bonoa: 300 euro
- Dardarazko plataformarako bonoa oparitzen dugu

San Inazio. 4 behea  
 20870 Elgoibar  
 Telf.: 943 742 715  
[www.ammergroup.es](http://www.ammergroup.es)



## OKINDEGIA

7 domeka **BOLINTXO**

### FARMAZIAK

	<b>24 ORDUZ</b>
5	Fernandez
6	Yudego
7	Yudego
8	Zabaleta
9	Etxeberria ( <i>Errosario</i> )
10	Ibañez
11	Garitaonandia
12	Etxeberria ( <i>Santa Ana</i> )

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 5 barixakua

### Erakusketa

19:00 'Patchwork'

Haizea emakume taldeak antolatuta, Isabel Azkue eta Mertxe Lapedriza elgoibartarrek eginiko irudien erakusketa. Kultur Etxean egongo da ikusgai hilaren 14ra arte.

## 6 zapatua

### Terapia

10:00 Barreterapia

Haizeak antolatuta, Kultur Etxean. Ondoren, bazkaria egingo dute Sigma jatetxean.

## Ikus-entzunekoak

10:00 Palestinari buruzko hitzaldia

Gazte asanbladak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Jarraian, 11:30ak aldera, hezkuntza, feminismoa eta etxebizitzari buruzko mahaingurua izango da. Eguerdian mokadutxo egingo dute.

### Antzerkia

22:00 'Modelo clowntrapublicitaria'

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, Berdintasun Sailak antolatuta. Kultur Etxeko sotoan.

### Musika

22:00 Kontzertua

Norman eta Sixty Sexers taldeek kontzertua eskainiko dute, Gaztetxean. Sarrera, 5 euro.

## 7 domeka

### Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

1. *Brisas del Ebro*, pasodoblea (R. Dorado)
2. *Dialogos*, rapsodia sinfonikoa (F. Bonete)
3. *A Children's suite*, intrada (A. waignein)
4. *Alegrias del vivac*, selekzioa (P. Markina)
5. *Suite on russian dances*, folk errusiarra (T. Kenny) Herriko Antzokian.



### GAZTELEKUKO EKINTZAK

#### BARIXAKUA 5

Argazki rallya 17:30

#### ZAPATUA 6

Zinema 17:00

#### DOMEKA 7

Topagunea 17:00

#### MARTITZENA 9

Eskulanak, bitxigintza 17:00

#### EGUAZTENA 10

Txoko pribatua 17:00

#### EGUENA 11

Sukalde txokoa 17:00



### LUDOTEKAKO EKINTZAK

#### BARIXAKUA 5

Jolas librea 17:00

#### ASTELEHENA 8

Wii: Carnival 17:30

#### MARTITZENA 9

Irakurketa txokoa 16:00

#### EGUAZTENA 10

Marrazki txokoa 17:30

#### EGUENA 11

Talde jolasak 17:30

### «Un tipo serio»

- 5, barixakua: 22:15  
6, zapatua: 19:00/22:15  
7, domeka: 19:00  
8, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2009. Zuz.: Joel Coen, Ethan Coen. Akt.: Michael Stuhlbarg, Richard Kind. 105 min. Istorioa 1967. urtean dago girotua. Larry Gopnik fisika irakaslearen bizi-

modua okertzen ari da. Emazteak abandonatu egin du, eta maitaleak konbentzitu nahi du berarekin hotel batera joateko. Bat-batean mehatxu anonimo batzuk jasotzen hasiko da.



## 8 astelehena

### Ipuin kontalaria

17:00 eta 17:30

'Sexismorik gabeko ipuinak'

Udal Liburutegiak eta Berdintasun Sailak antolatuta. Liburutegian.

## 11 eguena

### Hitzaldia

19:30 'Ostegun bidaiariak'

Gazte Informazio Guneak antolatuta, Alemaniari buruzko hitzaldia eskainiko du Danele Sarriugartek. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 12 barixakua

### Antzerkia

22:15 'El club de las mujeres invisibles'

Vaiven Produksioak taldeak taularatuko du antzezlan. Herriko Antzokian.

### Batzarra

18:00 Jubilatuen egoitzako batzar orokorra

Jubilatuen egoitzan.



## Gure gomendioa

### Musika Bandaren kontzertua

Otsailak 7, domeka, Herriko Antzokian

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du datorren domekan, Herriko Antzokian. Bost pieza joko dituzte, eta horietatik hiru estreinaldiak izango dira: *Brisas del Ebro*, pasodoblea (R. Dorado), *A Children's suite*, intrada (A. Wagnin) eta *Alegrias del vivac*, selekzioa (P. Markina). Bestalde, aste honetan hil den Begoña Latxari omenaldia egingo diote. Kontzertua 12:30ean hasiko da.



«Delta»  
(Ongarri zinekluba)  
11, aguea: 21:30

«Tiana y el sapo»  
7, domeka: 16:30

PREST

**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

# ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE MARTXOAK 11** osteguna 17:30

Enpresagintza Fakultatea

**OÑATI MARTXOAK 6** larunbata 10:00-13:00

**IRUN MARTXOAK 25** osteguna 17:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**ESKORRIATZA MARTXOAK 11** osteguna 18:00

ARETO NAGUSIAN

etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - [www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

Estatu Batuak, 2010. Zuz.: John Musker, Ron Clements. Marrazki bizidunak. 95 min. New Orleans (AEB), 20ko hamarkadan. Jazza sortzen ari

da. Tiana gazte beltzak jateke bat irekitzeko ametsa du. Igel bihurtutako printze batek, berri, giza gorputza berreskuratzen nahi du.

txatxaran



## mikel olaizola

**Erniarraitz bertso txapelketan hartu zuen parte Mikel Olaizolak joan zen aseturuan, Azkoitin. 19 urte egingo ditu aurten, eta dagoeneko ezin du Eskolarteko txapelketetan parte hartu. Beraz, gazteentzako txapelketetan parte hartzen hasi da bertsolari elgoibartarra. Estreinaldia ez da oso ona izan, baina esperientzia aberasgarria izan dela adierazi du**

### “Jende aurrean kantatzen urduri jartzen naiz oraindik”

**183 puntu lortu dituzu txapelketan. Gustura geratu zara egindako lanarekin?**

Nire kanporaketan sei lagunek hartu genuen parte, eta azkena geratu naiz. Parte hartzaile batzuk ezagutzen nituen, eta banekien ni baino hobeak zirela. Gainera, gazteena neu nintzen, eta esperientziak ere garrantzi handia izaten du horrelakoetan. Ez dut esan nahi adinagatik gelditu nintzela azken postuan, baina eragina izan zuen. Ez nuen gauza handirik espero, baina apur bat hobeto ibiliko nintzelakoan joan nintzen.

**Eta, zer gertatu zen?**

Ez nengoen zentratuta, eta momentuan konturatu nintzen ez nuela maila ona eman. Blokeatu egin nintzen, eta ez nituen bertso onak bota. Ez dut txapelketa ona jokatu, baina esperientzia aberasgarria izan da. Gauza asko ikasi ditut! Ehun lagun inguru zeuden aretoan, eta jende aurrean kantatzeak hurrengo txapelketetarako balio izango dit. Alde positiboari begiratu behar zaio horrelakoetan.

**Zein alde dago Eskolartekotik Erniarraitz txapelketara?**

Bertsoak prestatzeko denbora, batez ere. Eskolartekoetan denbora gehiago izaten da, eta ni horretara ohituta nago. Jende aurrean kantatzen urduri jartzen naiz oraindik.

**Nola animatu zinen Erniarraitz txapelketan parte hartzera?**

Orain arte Eskolarteko txapelketetan jardun

dut, baina horietan 18 urte bete arte bakarrik hartu daiteke parte. Erniarraitz txapelketako antolatzaileek deitu egin zidaten han parte hartzeko, eta baietz esan nien. Poza ematen du jendea norberarekin akordatzek. Apirilean Goierriko Osinalde txapelketan hartuko dut parte.

**Zelan ikusten duzu bertsolaritza gaur egun?**

Apur bat modan jarri dela uste dut. Txapelketa Nagusiagatik-edo, *boom* moduko bat izan du bertsolaritzak. Esaterako, Elgoibarko Gabonetako bertso saioa ere kirolegian egin behar izan zuten. Kartela oso ona zen, eta komunikabideek ere lagundu zuten, baina han ikusi nuen jende asko, ez nuen sekula bertsolaritzarekin lotu. Elgoibar ez da inoiz oso bertsozalea izan. Azkenaldian Uxue Alberdi dabil bertsotan, baina nik neuk ez dut nire burua maila horretan ikusten

**Zer da zuretzat bertsolaritza?**

Etxekoei gustatzen zaie, eta txikitatik bizi izan dut, baina bertsolaritza zaletasun bat da niretzat. Hori argi daukat.

**Errazu bertso eskolako kidea ere bazara. Nola ikusten duzu etorkizuneko bertsolarien harrobia?**

Ez daukagu ganora handiegirik bertso eskolan. Umeei erakusten jarduten dugu, eta batzuk badaukate bertsotarako abilezia. Elgoibar ez da inoiz Azkoiti bezalakoa izango, baina gazteen artean gero eta zaletasun gehiago dagoela iruditzen zait.





## AUTOMATISMOETAKO PROIEKTISTA (8/10 Erref.)

### FUNTZIOAK:

- Bezero eta hornitzaileentzat proiektu espezifikoak ezartzea.
- Teknologia aurreratudun ekipamenduak dituzten automatismo proiektuak diseinatu eta martxan jartzeko ardura.
- Hornitzaileen ekipamenduen jarraipena, kontrola eta onartzea.

### ESKATZEN DENA:

- Elektronikan edo informatikan espezializatutako Ingeniaritza titulazio akademikoa.
- Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz. Bidaiatzeko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea.

Mekanizazio prozesuetako CNC eta PLC programazioetan ezagutza izateri garrantzia emango zaio.

## MUNTAIAREN ETA ABIARAZI TEKNIKARIA (9/10 Erref.)

### FUNTZIOAK:

- Makina-erreminten muntaiaren eta egiaztatzearen arduraduna.
- Salmanta ondorengo laguntza teknikoa. Arazo teknikoaren konponketa, plantan bertan edo bezeroaren etxean.

### ESKATZEN DENA:

- Ingeniaritza edo Goi mailako FP-II titulazio akademikoa.
- Ingeleserik harremanak izateko gaitasuna.
- Bidaiatzeko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea.

CNC ezagutzeari garrantzia emango zaio.

## MEKANIZAZIOKO PROZESUETAKO INGENIARIA (10/10 Erref.)

### FUNTZIOAK:

- Mekanizazioko prozesuen programak eta simulazioak egin, eta estrategiak diseinatu.
- Mekanizazio prozesuak makinan martxan jartzen parte hartu.
- Erreminten ezagutza eguneratua izateko hornitzaileekin harremanak.
- Eskaintzak egiten lagundu.

### ESKATZEN DENA:

- Mekanikan espezializatutako Ingeniaritza titulazio akademikoa.
- Simulazio programen ezagutza.
- Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz.
- Bidaiatzeko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea.

## KOMERTZIALEKO ZUZENDARIA (11/10 Erref.)

### FUNTZIOAK:

- Zuzendari Nagusiaren gidaritzapean, Komertzial eta Marketinoko Politika zehaztea, eta ondorengo arloetan Merkatuaren Kudeaketaz arduratzea: Planifikazio komertziala, promozio komertziala, sare komertzialaren kudeaketa, bezeroen kudeaketa, eskaintzak eta eskaerak.
- Salmenten urteko helburuak ezartzea, eta hauei betetze mailaren arduradun izatea.
- Sare komertzialaren eraginkortasuna zuzendu, ebaluatu eta optimizatu etengabe.

### ESKATZEN DENA:

- Unibertsitateko titulazioa. Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz, eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere baloratuko da.
- Arlo komertzialaren ezagutza izatea. Bidaiatzeko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea.
- Bezeroekin harremanak izateko eta negoziatzeko gaitasuna.

## PROIEKTU ARDURADUNA (12/10 Erref.)

### FUNTZIOAK:

- Bezeroaren eskaerak bideratzea eta fase guztien jarraipena egitea, kalitatea, kostuak eta epeak.
- Proiektuetan intzidentziak identifikatu eta konponbideak proposatzea.
- DRS-ren, bezeroen eta hornitzaileen arteko interlokuzioak egitea, kargen kuadernoak eta onartze-protokoloak eginez eta hauek betetzen direla kontrolatuz.

### ESKATZEN DENA:

- Ingeniaritzako titulazio akademikoa.
- Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz.
- Ofimatikako erremintak erabiltzailerik aurreratua izatea.
- Bidaiatzeko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea.

Proiektuen kudeaketan esperientziari (dinamika, informatikako erremintak...e.a) garrantzia emango zaio.

## PROIEKTISTA MEKANIKOA (13/10 Erref.)

### FUNTZIOAK:

- Produktuen espezifikoaren definizioan parte hartzea.
- Multzo mekanikoen diseinuaren eta 2D-ko eta 3D-ko despiezeen arduraduna.
- Produktuaren garapenean proiektuekin interlokuzioa.

### ESKATZEN DENA:

- Mekanikan espezializatutako ingeniaritza titulazio akademikoa.
- 2D eta 3D diseinu-erremintak erabiltzen esperientzia izatea.
- Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz, eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere baloratuko da.
- Bidaiatzeko prest egotea.

Fluxu eta automatismoetan ezagutza izateari garrantzia emango zaio. Konfidentzialtasun osoa bermatzen da.

### LANPOSTU GUZTIETAN ONDORENGOA BALORATUKO DA:

Esperientzia antzeko lanpostuetan. Ekintzailea eta taldean lan egiteko gaitasuna. Lidergoa. Euskararen ezagutza.

30 eguneko epean, surretan aukeratutako bakarrik erantzun zaila

Emendako datuak dagokien bezeroak jakiteko izango dira, abenduaren 13ko 15/1999 legeak, hots, Datu Pertsonalak Babatzeko Legeak sartzen dituen iruzpideak jarraituz.

[www.lks.es](http://www.lks.es)

LKS

Interesa izanez gero, bidali curriculumak: [seleccion@lks.es](mailto:seleccion@lks.es); edo 89 posta kutxa, 20240 Ordizia, Gipuzkoa, kasu bakoitzean dagokion erreferentzia zehaztuz.





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14-16 behea  
☎ / Faxe: 943 74 10 71

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxe: 943 74 73 12  
www.fjlocoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04

### Lanusta

Etxe barruko erreformak  
☎ 636 375 323  
www.lanusta.com



## Lorezaintza

### Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxe: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



## Sarrailagintza

### Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)  
☎ 943 701 391  
www.giltzak.com



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76/608 774 032



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

